

# 1. Hedabideak

## AZTERTZEKO ARLOA

Munduari begiratzeko hautatzen ditugun leihoak dira hedabideak. Izan ere, hizkuntza batean edo bestean, hedabideek munduari begiratzeko modu ezberdinak erakusten dizkigute.

Euskaldunak izan arren, egunkariak, telebista, irratia, aldizkariak, podcastak... eta ohiko hedabideak oro har zein hizkuntzatan kontsumitzen ditugun aztertu nahi dugu alor honi buruz ari garenean. Erabaki pertsonaletatik hasita, herrian eragiten duten erabaki zabala-goetara begira jarrita: leku publikoetan, ostalaritzan, zerbitzuetan, administrazioan, eta abar.



## ISPILUARI BEGIRA

### ETXEAN: Informazioa eskuratzeko ohituren inguruko hausnarketa egin.

Hedabideak etengabe kontsumitzen ditugu: etxean edo autoan irratia piztuta daukagunean, telebistaren aurrean gaudenean, aldizkariak irakurtzen ditugunean, egunkaria zabaltzen dugunean, irratsaio gustukoenen podcastak entzuten ditugunean. Baina zein hizkuntzatan irakurtzen, ikusten edo entzuten ditugu oro har?

#### GALDERAK:

- > Telebista, oro har, euskaraz ikusten al dut?
- > Ezagutzen al ditut euskarazko telebistak? Tokikoak, zein gainerakoak: ETB1, ETB3, Hamaika Telebista...
- > Zein dira entzuten ditudan irratia? Euskarazko eskaintza ezagutzen al dut? Entzuten al dut?
- > Zein dira oro har irakurtzen ditudan aldizkariak? Euskarazko aldizkaririk erosten al dut? Eta beste hizkuntzetan? Ez badut erosten euskarazkorik, zergatik hautatzen dut erdarazko beste aldizkariren bat? Ez al dago eskaintza bera euskaraz?
- > Kirolari buruzko informazioa gustukoa baldin baduzu, zein hizkuntzatan irakurtzen duzu oro har?

### KALEAN: Leku publikoetako hedabideen eskaintza aztertu

Leku publikoetako hizkuntza paisaiaren osagarri garrantzitsuak dira hedabideak. Tabernetan dauden egunkariak, osasun etxean dauden aldizkariak, autobusean jarrita egon ohi den irratia, batean edo bestean piztuta egoten diren telebistak, udalak non argitaratzen dituen iragarki ofizialak, eta abar.

#### GALDERAK:

- > Herriko tabernetan ohikoa al da euskarazko hedabideak aurkitzea? Egunkariak, aldizkariak, irratia euskaraz, telebista euskaraz...
- > Leku publikoetan euskarazko hedabideak gailentzen al dira? Euskarazko irratia, euskarazko egunkariak edo aldizkariak...
- > Udalak oro har euskarazko hedabideak hautatzen al ditu iragarki ofizialak, publizitate instituzionala edota eskelak jartzeko?



## ALORRA:

### HEDABIDEAK

#### Helburua:

Maila pertsonalean zein kolektiboan hedabideak zein hizkuntzatan kontsumitzen ditugun hausnartzea, eta ahal bada hizkuntza ohiturak aldatzea, euskarazko hedabideak gailendu daitezten.

#### Aztergaiak:

Egunkariak, aldizkariak, irratia, telebista, podcastak...

**Eremua:** etxea, leku publikoak, lantokia...

#### ARDURA:

Askotarikoa: pertsonala, kolektiboa zein erakunde publikoena.

#### URRATSAK:

- Udala, taberna, etxea, lantokia: harpidetu euskarazko aldizkari edo egunkariren batera.
- Lehenetsi euskarazko hedabideak, baita publizitate instituzionalean eta iragarkietan ere.
- Ezagutarazi euskaraz lan egiten duten herriko kazetariak.

## ERAGIN BURUARI

### TOKIKO HEDABIDEAK

- Herrian ba al datokiko hedabiderik? Herrialdizkaria, telebista, irratia...
- Zein hizkuntzatan aritzen da?

### KAZETARIAK

- Herrian ba al da kazetaririk? Zein hedabidetan egiten du lan? Euskarazko hedabideetan nabarmendu delako al da ezaguna?

### TELEBISTA

- Telebistako aurkezle edo esatari ezagunik ba al da herrian? Zein hizkuntzatan egin du bide profesionala?

### EUSKARAZ BIZI GARA, BAINA ERDARAZ HIL?

- Eskelak zein egunkaritan eta zein hizkuntzan argitaratzen edo irakurtzen ditugu oro har?

### KIROL INFORMAZIOA

- Zein hizkuntzatan ikusten edo entzuten dituzu gustuko taldearen partidak?
- Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu oro har kirol informazioa.
- Ezagutzen al duzu kirola euskaraz lantzen duen hedabiderik? Sasoian, Harmaila...



**I+D**  
**IDEIAK**

- Herriko leku edo taberna esanguratsuetan euskarazko hedabideak egon daitezen harpidetza kanpaina sustatu.

- Herriko leku edo taberna esanguratsuetara gutuna bidali, edo arduradunekin bilera egin, euskarazko hedabideak egotearen garrantzia ikusaraziz.

- Egun zehatz batean, edo Euskaraldian zehar, euskarazko egunkariak, aldizkariak eta hedabideak erosteko kanpaina egin.

---

---

---